



## HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

### 2007-2008 IKASTURTEA

#### 1. SARRERA

Ikuskaritzaren Urteko Plan hau azkena da 2005-2008 Hirurteko Planaren garapenean, eta berrikuntza esanguratsua dakartza Hiru Urteko Planak ezarritakoari begira. Berrikuntza horiek azkeneko bi ikasturteetan Ikuskaritzaren Planaren hobekuntzari buruz egin diren azterketa eta ondorioen emaitza dira. Horretarako, honako faktore hauek hartu dira kontuan:

- Lurralde Arteko Batzordeak eta Zonaldeko Burutzek egin dituzten bileretan ateratako ondorioak.
- Ikuskaritzaren jardueren hartzailak asebetetze-mailari buruzko inkestak.
- Kalitate Batzordearen eta Pryma enpresaren kanpo-aholkularitzak egindako proposamenak, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerak ziurtatzeko, UNE-EN ISO 9001:2000 araua oinarritzat hartuta.

Azterketa eta ondorio horietan oinarrituta, honako hobekuntza-arloak atzeman dira:

- Urteko Planaren jarduerak sinplifikatzeko komenigarritasuna.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren xedea, ikuspegia, baloreak eta estrategiak birdefinitzea.
- UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren baldintzekin bat datozen helburuak ezartzea, helburuen jarraipen eta kontrola ahalbidetzen duten adierazleak erabiliz.
- Ikuskariak bere erreferentzia-ikastetxeetan gauzaten dituen ohiko ekintzak sistematizatzea. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzekin, Hezkuntza Saileko hezkuntza-arduradunekin eta beste erakunde batzuekin aurrera eramaten diren lankidetzak sistematizatzea.
- Datu-baseak edo beste informatika-aplikazioak, Ikuskaritzako zonalde guztietan berdinak izan behar dutenak, prestatzea eta erabiltzea, lurralde-mailako informazioa jasotzeko.
- Ikuskariak jarduteko irizpideak koordinatu eta bateratzea.
- Eskola-elkartearen kide desberdinek egindako eskariei hobeto erantzutea.
- Paper-euskarrian eta informatika-euskarrian dagoen dokumentazioaren kudeaketarako sistema komunak ezartzea.
- Prestakuntza-jarduerak planifikatzea eta gero horien eraginkortasuna ebaluatzea.

Plan honetan aipatzen diren helburuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtagiria, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera, ikuskariak lanpostu-zerrendako lanpostuetara atxikitze prozesuaren arauketari eta Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko enplegu-eskaintzaren arauketari behin betiko ekin beharra, eta parte hartzea eta prestakuntza izatea, ebaluazio diagnostikoarekin eta ikastetxeen hobekuntza-planekin zerikusia duen guztirako.

Azpinarratu behar da, bestalde, iazko Planarekin alderatuta, indarrean jarraitzen duela Ikuskaritza eredu bat sendotzeko asmoa, hau da, euskal hezkuntza sistemaren premiei, orokorrean, eta ikastetxeen, Administrazioaren eta Eskola-elkarteen premiei eraginkortasunez erantzuneko dien eredu, horiek baitira Ikuskaritzaren jardueren lehentasuneko jasotzaileak. Horretarako, nahi du lan-taldeko koordinazio eta prestakuntza erraztu eta ikuskariek parte hartzea eta erantzukizun handiagoa beren gain hartzea, Urteko Plan hau osatzen duten prozesuen plangintza, garapen eta ebaluazioari dagokionez.

Premia hauei erantzuna emateko, 2007-08 Urteko Plan hau ondorengo atal eta eranskinetan egituratzen da:

- Kalitateari buruzko politika.
- Helburuak.
- Ikuskaritzaren prozesuen mapa.
- Zerbitzuak identifikatzea eta eskaintzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa:
  - Lan-batzorde eta taldeak.
  - Zaintza-egunean dauden kanpo eskaerei eman beharreko arreta antolatzea.
  - Langile berriak hartzea.
  - Dokumentazioaren kudeaketa eta artxiboa.
- Ikuskaritzako pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzea.
- Urteko Planaren ebaluazioa.

## **2. KALITATEARI BURUZKO POLITIKA.**

Ondorengo hau da Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek hitzartu duten Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitateari buruzko politika, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren baldintza dena:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzak (hemendik aurrera Hezkuntza Ikuskaritzak) uste du bere lana beharrezkoa dela, euskal hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek, bereziki, kalitateko funtzionamendu bat lortzeko.
- Horregatik, haren jarduerak, agindu zaizkion ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzak-funtzioetan agertzen direnak, behar bezala kudeatzeak lehentasuna du eta kontuan hartu behar da ikuskari bakoitzaren eguneroko lanean, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzionamendu ona ziurtatzeko eta ahalik eta hobekien senti daitezen eskola-erkidegoa, Hezkuntza-Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideak berak.

- Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen pertsonala (ikuskeriak eta administrazio-pertsonala) da haren aktiborik nagusiena. Ikuskeritza Nagusia eta Burutza desberdinak, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkia, parte-hartzea, espezializazioa, profesionaltasuna, talde-lana eta emaitzen ebaluazioa antolaketa-irizpideen arabera, pertsonalaren motibazioa eta pozik egotea lortzen saiatuko dira, haien garapen humano eta profesionala sustatuz.
- Hezkuntza Ikuskeritzak, Ikuskeritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere gain hartzen du ondorengo ezaugarriak izango dituen antolaketa eraginkor bat edukitzeko konpromisoa: haren profesionalak jardueren eta eskaintako zerbitzuen eguneroko kudeaketan parte hartzea, haren prozesuak etengabe hobetzeko lan egitea eta eskola-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskeritza bera pozik egon daitezen behar diren gestioak egitea.
- Antolaketaren helburuak betetzen direla bermatzeko, Hezkuntza Ikuskeritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskeritzaren jarduera arautuko duten ondorengo estrategiak agertuko dituena:
  - Ikastetxeek, ikasleek, gurasoek eta Hezkuntza-Administrazioako arduradunek, beren funtzioetan jardutean, osatzen duten erkidegoaren premia eta itxaropenei erantzuna ematea.
  - Arreta hobe eskaintzea eskola-erkidegoko partaide desberdinek egindako eskaerei.
  - Betetzea Hezkuntza Ikuskeritzari eta, bere funtzioak betetzean, gauzatzen dituen jardueri eragiten dieten lege- eta arau-baldintzak.
  - Egiten diren ikastetxeen bisiten kalitatea hobetzea.
  - Planifikazio baten arabera, koordinazioz eta taldeka lan egitea.
  - Behar diren planen bidez Ikuskeritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
  - Hezkuntza Ikuskeritzaren barne eta kanpo komunikazioa hobetzea.
  - Hezkuntza Ikuskeritzaren jardueren exigentzia eta premiei egokitzeko malgutasuna erakustea.
  - Identifikatu eta ezabatzea Ikuskeritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan dauden akatsen balizko arrazoiak. Horrela eraginkorragoak izan daitezen lagunduko da.
- Kalitateari buruzko politika honek ematen du Ikuskeritzaren jardueran gidari diren estrategia desberdinak, kalitatearen helburuetan zehaztuko direnak, finkatu eta berrikusteko erreferentzia-esparru egokia.
- Hezkuntza Ikuskeritzak ezarri ditu politika hau pertsonal osoari komunikatzeko eta ulertzeko bideak eta, sistema berrikustearen barruan, aldizka berrikusten dela bermatzen du.

### 3. HELBURUAK.

Urteko Plan honetan sartuta dauden helburuak honako hauek dira:

- Hezkuntza-sistema kontrolatu eta ebaluatzea, Hezkuntza Saileko irakaskuntza eta programa berriak ezartzeari dagokionez.
- Urteko planaren dokumentazioarekin eta ekintzak ezartzearekin jarraitzea, Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtagiria, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera, lortzea helburutzat izanik.
- Ikuskarrien ekintzak koordinatu eta bateratzea, erreferentzia-ikuskarriaren gidarekin eta prozesu eta azpiprozesuen jarraibideekin bat etorriz.
- Dokumentazioa kudeatzeko eta paper- eta informatika-euskarrian artxibatzeke finkatuta dagoen sistema ezartzea.
- Prestakuntza lehenestea, irakaskuntza berriak ezartzearekin, ebaluazio diagnostikoarekin eta ikastetxeen hobekuntza-planekin zerikusia duen guztirako.
- Eskola-elkarteko kideek egindako eskariei arreta jarri eta erantzutea.
- Ikuskaritzaren xedea, ikuspegia, baloreak eta estrategiak berraztertu eta eguneratzea.
- Ikuskaritzako lanpostu-zerrenda berria prestatu eta hori onartu eta argitaratzeko proposatzea
- Ikuskariak lanpostu-zerrendako lanpostuetara atxikitzeke prozesuaren arauketa eta Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko enplegu-eskaintzaren arauketa proposatzea.

### 4. IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA.

Indarrean jarraitzen du 2006-2007 ikasturteko Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuen mapak, 2005-2008 Hirurteko Plan Orokorrean zegoena aldatu zuenak, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren eskakizunei egokitzeke. Prozesuen mapa Urteko Plan honen I. eranskin moduan azaltzen da.

Ikuskaritzarentzat definituta dagoen kalitatea kudeatzeko sistema prozesuen bidez kudeatzera bideratuta dago, ondorengo antolaketa-egituraren arabera:

- **Makroprozesuek** kalitatea kudeatzeko sistema azaltzen dute eta UNE-EN ISO 9001:2000 aruari egokituta daude. Izan ere, arau horren kapitulu desberdinen arabera zehazten dira.
- **Prozesuak** dira, arauaren baldintzen arabera, makroprozesuak garatzeko tresnak. “Zerbitzuen identifikazioa eta ematea” makroprozesuaren kasuan, prozesuak Ikuskaritzaren jardura desberdinen (azpiprozesuak) taldekatze gisa definitzen dira, kontrol-, aholkularitza- eta ebaluazio-irizpide funtzionalen, eskaeraren jatorriaren eta kanpo eta barne bezeroen tipologiaren arabera.
- **Azpiprozesuak** Ikuskaritzaren jardura desberdinen konkrezioa dira eta ZE 0201 agirian, “Ikuskaritzako azpiprozesuen zerrenda”, identifikatuta daude.

**Makroprozesuak** ondorengo hauek dira:

- MP 01.- Estrategia, plangintza eta antolaketa.
- MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.
- MP 04.- Agirien kudeaketa.
- MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.
- MP 06.- Neurketa, azterketa eta hobekuntza.

Makroprozesu bakoitzean sartutako **Prozesuak** I. eranskinean aipatzen dira (Ikuskaritzaren prozesuen mapa)

2007-2008 ikasturtean kalitatearen kudeaketa-sistemaren dokumentazioarekin eta ezarpenarekin jarraituko da. Sistema hori Ikuskaritzaren beraren premiei eta IS 9001:2000 araudiari egokituta dago.

Ikuskaritza Nagusiari, Lurralde Burutzei, Zonalde Burutzei eta prozesu eta azpiprozesuetako arduradunei dagokie liderrak izatea Ikuskaritzaren prozesu eta azpiprozesuetan adierazitako jarduerak aurrera eramateko garapenean.

## **5. ZERBITZUAK IDENTIFIKATZEA ETA ESKAINTZEA.**

MP02 barruko jarduerak edo azpiprozesuak dira urteko plan honen funtsezko gunea osatzen dutenak eta zehaztu egiten dute zein diren Hezkuntza Ikuskaritzak egiten dituen zerbitzuak. Jarduera horiek honela sailkatuta daude: kontrol-, ebaluazio-, aholkularitza- eta lankidetzajarduerak.

Kontrol- eta ebaluazio-jardueren plangintza, Ikuskaritzari dagokionez, II. eranskinean zehaztuta dago. Eranskin horretan, jarduera edo azpiprozesu bakoitzarentzat honako atal hauek zehazten dira:

- Ikuskaritzak egin beharreko azpiprozesuaren edo jardueraren izena.
- Egiteko aurreikusten den aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txosten mota eta jaulkitze-data.
- Azpiprozesuaren aplikazio-eremua: jardun behar den ikastetxeak edo erakundeak.
- Azpiprozesua planifikatu eta programatzeaz arduratzen den talde edo arduraduna.
- Jarduera hau ikastetxeetan egin behar duten ikuskariak eta beren jarduera-eremua: zonaldea, lurraldea edo erkidegoa.

Sistemaren kudeaketa dokumentalaren prozesuan (PR 0401 Dokumentazioen eta erregistroen kontrola) ezarrita dagoena kontuan izanik dokumentatu beharko dira azpiprozesu horiek.

Aholkularitza-jarduerak Ikuskaritzaren beraren ekimenez egiten dira, erreferentzia-ikastetxeetan egindako kontrol- eta ebaluazio-jardueren ondorioz, edo bestela ikastetxeek edo Hezkuntza Saileko beste zerbitzuen eskariei edo eskaerei erantzuteko egin daitezke. Aitzitik,

lankidetzaz-jarduerak lan-karga handia dakarte eta eskuarki lanaldiaren zatirik handiena hartzen dute. Beti erantzuten diete Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzuen jasotzaileen eskariei edo eskaerei.

PR 0203 eta PR 0204 prozesuetan ezarrita dauden orientazioen arabera garatuko dira aholkularitza- eta lankidetzaz-jarduera horiek.

**Aurreikusita dauden aholkularitza-jarduerak honako hauek dira:**

- Aholkularitza, OOGren elkarbizitza-batzorde edo Eskola Kontseiluarentzat.
- Aholkularitza, alderdi pedagogiko eta administratiboei dagokienez ikasleak ebaluatzeko prozedurei buruzkoa. Horretarako, Lurralde-Burutzek ikastetxeetako zuzendaritza-taldeentzat prestakuntza-saioak antolatuko dituzte, ikasleen ebaluazioan aurreikusitako aldaketei buruzkoak.
- Aholkularitza, diziplina-espeditenteak behar bezala prestatzeari buruzkoa.
- Aholkularitza, eskolatzaz-liburu, ebaluazio-akta eta ikasketa-espeditenteak bete eta zaintzeari buruzkoa. Horretarako, Ikuskaritza Nagusitik ikastetxe guztietara bidaliko dira jarraibideak, ikasleekin zerikusia duen administrazio-dokumentazioari buruzkoak.
- Aholkularitza, hezkuntza-proiektua, urteko plana eta ikastetxearen memoria prestatzeari buruzkoa.
- Aholkularitza, zuzendaritza taldeentzat, horien kudeaketaren inguruko gaiei buruzkoa.
- Aholkularitza, ikastetxeentzat, Europako hezkuntza-programetan parte har dezaten.

**Lankidetzaz-jardueri dagokienez, honako hauek daude aurreikusita:**

- 2007-2008 ikasturterako aurreikusita dauden oposizio-epaimahaietan parte hartzea. Honela zehazten da parte hartze hori:
  - Oposiziotegileek aurkeztutako unitate didaktikoak baloratzeko batzordeetako burutza.
  - Oposizio-epaimahaietako burutza.
  - Hautaketa-batzordeetan parte hartzea eta epaimahaiburuentzat jarraibideak prestatzea.
- Ikasleen ebaluazio diagnostikoa planifikatzerakoan, ISEI-IVEIrekin elkarlanean aritzea, honako alderdi hauei dagokienez:
  - Ebaluazioaren diseinua.
  - Probak lantzea.
  - Proba pilotuak ezartzea.
- EFQM ebaluazioetan parte hartzea.
  - Euskalit-ekin elkarlanean EFQMren kanpoko ebaluazioetan parte hartzea, Euskalit eta Lanbide Heziketa eta Etengabeko Prestakuntza Sailburuordetzaren artean ezarritako hitzarmenarekin bat etorritik.
- Ikastetxeetako langileei irekitako espeditenteen instrukzioa.
- Hezkuntza Saileko arduradunek (Sailburua, Sailburuordeak, Zuzendariak eta Lurralde-Ordezkariek) eskatutako txostenak.

- Hezkuntza Sailaren arduradunek eskatutako txostenak, honako erakunde hauek eskatuta:
  - Euskadiko Eskola Kontseilua.
  - Arartekoa.
  - Eusko Legebiltzarra.
  - Estatuko Goi-Ikuskaritza.
- Honako xede hauetarako eraturako batzordeetan parte hartzea: zerbitzu-eginkizunak ebaztea, irakasleen merezimenduak barematzea, lehiaketa eta beste deialdi batzuei begira, berrikuntza-proiektuak, etab.
- Atzerriko ikasleak eta besteak baino egoera txarragoan dauden biztanleak eskolatzeko batzordeetan parte hartzea.
- Honako proba hauei dagozkien epaimahaietan parte hartzea: heziketa-zikloetara sartzeko probak, unibertsitatera sartzeko probak, Batxilergoko aparteko sariak, etab.
- Irakasleak ikastetxeetara berraxikitzeko prozesuan Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea.
- EHUrekin elkarlanean aritzea, PAEU koordinatzeko lanetan.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lege-araudia, ebazpenak eta zirkularrak prestatze-lanetan parte hartzea.
- Udalekin eta beste erakunde batzuekin (Emakunde, Adingabeen Fiskaltza, Sarean, Kalitate Agentzia, foru-aldundiak, etab.) elkarlanean aritzea.
- Zuzendarien prestakuntzan parte hartzea.

## **6. HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA.**

### **6.1. LAN-TALDEAK ETA BATZORDEAK.**

Hezkuntza Ikuskaritzaren antolamendua eta jarduera finkatzen duen 2002ko ekainaren 18ko Aginduan eta 2005-2008 aldirako Hirurteko Plan Orokorrean ezarrita daude 2007-2008 ikasturtean jardungo duten Batzorde eta Lan-taldeak. Honako hauek dira:

- **Lurralde Arteko Koordinazio Batzordea**

2002ko ekainaren 18ko Aginduak (2002ko uztailaren 2ko EHAA) 8. artikuluan Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeari ezartzen dizkion funtzioez gain, Ikuskaritzaren Urteko Planaren jarraipena egin eta betetzen den ala ez ebaluatu beharko du, baita aurreikusitako helburuak lortu diren ala ez ebaluatzea ere. Batzorde honek ohiko bilera hamabostean behin egingo du.

- **Kalitate-Batzordea**

Ondorengo ikuskariek osatuko dute: José Antonio Romerok (koordinatzaileak), José Ignacio Molinuevok, Pedro M<sup>a</sup> Legarretak, Koldo Salterainek, Mercedes Hidalgok, Jesús M<sup>a</sup> Kortazarrek, Xabier Egizabalek eta Lourdes Iasak.

Batzorde hau osatzen duten ikuskariek, erreferentziako ikuskari gisa esleituta dituzten ikastetxeetan (ikastetxe kopuru urria) egin beharreko funtzio orokor guztiez eta asteko zaintza-egunari dagozkionez gain, 2002ko ekainaren 18ko Aginduan eta 2005-08ko Hiru Urteko Plan Nagusian zehazten direnak eta kalitatea kudeatzeko sistema dokumentatu eta ezartzetik eratorritakoak bete beharko dituzte. Gauzak horrela, funtzio berezi hauek egiteko, batzordekideek bi eguneko gutxienezko dedikazioa izango dute astean (astelehena eta asteazkena).

Planean aurreikusitako prozesu eta azpiprozesuen plangintza eta dokumentaziorako Kalitate Batzordeak kontuan hartuko ditu azpiprozesu-talde desberdinek egindako alde aurreko lanak eta ISO 9001:2000 lortzeko zehaztutako aholkularitzaren laguntza izango du. Geroago, Ikuskaritzako Lurralde Arteko Batzordeak onartu beharko ditu Kalitate Batzordeak proposatutako prozesu eta azpiprozesuen dokumentazioa eta plangintza.

- **Ebaluazio Batzordea**

Ebaluazio diagnostikoari buruz Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeak bi helburu edukiko ditu. Alde batetik, elkarlana ISEI-IVEI erakundearekin ebaluazio honen diseinuan eta gaitasun ezberdinak ebaluatzeko egiten diren proben kontraste-azterketan eta, bestaldetik, bideratuta egongo da ebaluazio diagnostikoaren ondorioz ikastetxeetan egingo diren hobekuntza-planen kontrol eta ebaluazioetara.

Jarduera hauek planifikatzeko eta koordinatzeko Javier Granja, Ricardo Juan, Mercedes Hidalgo eta Gema del Río ikuskariekin osatuko den Ebaluazio Batzorde bat egongo da.

- **Azpiprozesu-taldeak**

Ikuskari baten zuzendaritzapean jardungo dute Urteko Planaren azpiprozesuen plangintzaz arduratuko diren taldeek eta ikuskari hori izango da taldeen funtzionamenduaren arduraduna.

Taldeek ondorengo funtzioak dituzte:

- Kalitate Batzordearekin elkarlanean esleitutako azpiprozesua planifikatzea.
- Azpiprozesua garatzeko argibide operatiboak eta behar den dokumentazioa hedatzea.
- Behar den txostena egitea, azpiprozesua bera nola egiten den ebaluatuz eta hobetzeko egin daitezkeen jarduerak proposatuz.

Taldeko ikuskari arduradunak ondorengo funtzioak ditu:

- Liderra eta koordinatzailea izatea azpiprozesua lurraldeetan aurrera eramatean.
- Taldeetako kideek egin behar dituzten jarduerak planifikatu eta programatzea, Ikuskaritzako Lurralde Arteko Batzordeari informazioa emanez.
- Azpiprozesua gauzatzeko ezarritako prozedura berrikustea.
- Txostena egiteaz arduratzea, taldeko gainontzeko partaideekin lankidetzan.
- Jarduera nola egin den baloratzea, ikuskari parte-hartzaileek emandako informaziotik abiatuz.
- Adierazitako helburuei buruz proposamenak egin eta hobekuntzak proposatzea.

Ikuskarrien kopuru aldakor batek osatzen du azpiprozesu-talde bakoitza eta haien izenak Urteko Plan honen 2. eranskinean aipatzen dira.



## **6.2. ZAINZA EGUNEAN KANPOKO ESKARIEI ERANTZUNA ANTOLATZEA**

Zaintza-eguneko kanpoko eskaritzat jotzen da edozein iradokizun, galdera, kexa edo erreklamazioa, ahozkoa nahiz idatzizkoa, baldin eta Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak egiten dituen edozein ikuskari edo administrazio-langileri zuzenduta badago.

Komeni da erreferentzia-ikuskariak erantzutea ikastetxeekin lotutako kanpoko eskari gehienei. Hori dela eta, zaintza zonaldeko ikuskarrien ordezkari-egoeratzat jo behar da, baldin eta ikuskari horiek, bulegotik kanpo daudelako edo bulego-lana eten ezin dutelako, une horretan eskariari erantzuterik ez badute.

Eskariak telefonoz jaso daitezke edota zuzenean, eskaria egiten duenak Hezkuntza Ikuskaritzako bulegoetara bisita eginez. Zaintza-ikuskariak edo administrazio-langileek komunikazio hori hartzen dutenean, presazko edo garrantzizko komunikazioa ez bada, erreferentzia-ikuskariari emango zaio horren berri, eta horretarako abisu-orria edo oharra erabiliko da, eskariaren datuak eta eskaria egin zuenarekin harremanetan jartzeko datuak azalduz.

Eskaria presazkoa edota garrantzizkoa bada, zaintza-ikuskariak kontsulta-orrian erregistratuko du eskaria, eta gero kasuan kasuko erreferentzia-ikuskariari emango dio, honek eskaria ezagutu eta erantzun egokia eman diezaion. Kontsulta-orri hauek ez dute balio administrazio-prozedura bati hasiera emateko. Kasu horietan, zaintza-ikuskariak lurralde-burutzen jarraibideei jarraitu eta, bidezkoa bada, eskaria erregistratuko du gorabeheren programa informatikoan.

Lurralde-burutza bakoitzak asteko zaintzak antolatuko ditu, eta bermatuko du egun bakoitzean gutxienez bi ikuskari izatea, irakasmaila desberdinetako berriazko ezagupenak dituztenak. Halaber, ikastetxeei jakinaraziko die zein den bertako erreferentzia-ikuskariari esleitu zaion zaintza-eguna, eta eskatuko du presazkoak ez diren eskari eta informazioak egun horretan bideratzeko.

Ikuskari bakoitzari esleitutako zaintza-eguna errespetatu egingo da. Justifikatutako edozein arrazoiengatik ezinezkoa izango balitz, kasuan kasuko Zonaldeko Burutzari jakinaraziko zaio, ordezkapena erabaki dezan.

## **6.3. PERTSONAL BERRIAREN HARRERA.**

M. Bonet, P. L. Rodríguez, J. A. Altozano eta I. Negredo ikuskariek osatutako taldeak PR 0302 (“Pertsonal berriaren harrera”) prozesuaren dokumentazioa eguneratuko du.

## **6.4. DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA ETA ARTXIBOA.**

M. Bonet, J. I. Molinuevo, J. A. González eta Imanol Erice ikuskariek osatutako taldeak PR 0401 (“Dokumentazioaren kudeaketa eta artxiboa”) prozesua martxan jartzearen koordinazioa egingo dute.

## **7. IKUSKARITZAKO PERTSONALAREN PRESTAKUNTZA ETA EUSKALDUNTZEA.**

2007-2008 ikasturtean ezarriko den PR 0303 (langileak prestatu eta euskalduntzea) prozesua alde batera utzita, planaren helburuei erantzun ahal izateko, aurreikusita dago, 2007-2008 ikasturtean, jarraian zehazten den prestakuntza instituzionala egitea:

- EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunaldiak.
- Prestakuntza, ebaluazio diagnostiko eta ikastetxeetako hobekuntza-planen alorrean.
- Prestakuntza, kalitate-programen eta etengabeko hobekuntza-programen alorrean: kalitatearen kudeaketa-sistema, ISO 9001:2000 arauaren arabera, ezartzeko aholkularitza.
- Prestakuntza-saioak, gatazketan bitartekaritza izateaz eta elkarbizitzaz.
- Prestakuntza, irakaskuntza berriak ezartzeaz.
- Prestakuntza, Ikuskaritzari agindutako zereginekin zerikusia duten alderdi juridiko eta administratiboez.
- Prestakuntza-saioak, Lanbide Heziketaren alderdi zehatzei buruzkoak (Hobbide).
- Prestakuntza espezializatua, Ikuskaritzak erabilitako informatika-aplikazioak burutzeko.
- Biltzar, mintegi, etab. etara joatea, komunikazioak edo txostenak aurkezten dituztenek lehentasuna izanik.

Ikuskari Nagusiak erabakiko du nortzuek hartuko duten prestakuntza-ikastaro hauetan parte, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta. Gainera, informazio-bilerak egiten jarraituko da, Ikuskaritzarentzat interesa duten gaiei buruzkoak.

Ikasturte honetan erraztasunak emango dira euskarako ikastaroetara joateko liberazioak, HE2 egiaztatzeko ikuskariak banaka eskatu eta Hezkuntza Sailak baimendu dituenak, IRALE programan dauden baldintzen barruan eta, betiere, bateragarri badira Ikuskaritzaren zerbitzua zonalde desberdinetan ematearekin.

Euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea du Ikuskaritzaren euskalduntzeak helburu, Ikuskaritzaren txosten desberdinetan eta, batez ere, Ikuskaritzaren Zerbitzuaren beraren bileretan.

## **8. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA.**

Hirurteko Plan Orokorra urteko planetan zehazten da, eta plan horiek ikasturte bakoitzaren bukaeran ebaluatuko dira. Hori dela eta, 2007-2008 ikasturtea bukatzerakoan, Urteko Plan hau ebaluatuko da, batez ere jarraian aipatzen diren iturrien bitartez:

- Indarrean dagoen urteko planean proposatutako kalitate-helburuak lortzeari dagokionez izandako emaitzak.
- Urteko planean aurrera eramandako prozesu, azpiprozesu eta jardueretan lortutako emaitzak, prozesu eta azpiprozesuen kontrol-adierazleen panelaren bitartez.
- Hezkuntza Ikuskaritzari egindako barneko nahiz kanpoko auditoretzen emaitzak.

- Eskainitako prozesu eta zerbitzuetan gertatutako desadostasunak eta jarduera zuzentzaileen eta prebentzio-ekintzen egoera.
- Urteko planean aurreikusitako prestakuntzaren eta aurreikusita ez baina eginda dagoen prestakuntzaren eraginkortasunaren neurketa.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren ekintzen barneko nahiz kanpoko jasotzaileen asebetetze-mailaren neurketak.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskainitako zerbitzuen jasotzaileek egindako iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren eta kalitatearen kudeaketa-sistemak Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko ekintzen garapenean izandako eraginkortasunaren balorazio globala.

Horrekin guztiarekin sistema berrikusteko txostena egingo da, gutxienez honako atal hauek jasoko dituena:

- Kalitatearen kudeaketa-sistema (kalitate-politika eta kalitate-helburuak barne) uki dezaketan aldaketak iradokitzea.
- Helburuak lortzeari dagokionez izandako emaitzak eta prozesu eta zerbitzuaren adierazleak.
- Barneko nahiz kanpoko auditoretzen emaitzak.
- Prozesu eta zerbitzuetan izandako desadostasunak.
- Ekintza zuzentzaileen eta prebentzio-ekintzen egoera.
- Asebetetze-mailaren neurketak.
- Iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Hobekuntza orokorrerako gomendioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Ateratako ondorioak.

Plan honen III. eranskinean aurkezten da Ikuskaritzaren Urteko Planarekin lotutako helburu eta adierazleen balioespena. Adierazle horiek eta prozesu eta azpiprosesuei dagozkienek osatzen dute adierazleen panela. Panel hori izango da urteko planaren jarraipenerako oinarritzko osagaietako bat.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 9a.

Ikuskari Nagusia



Izpta. Juan M<sup>a</sup> Aztiria Zabala

## I. ERANSKINA- IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA

### PROZESU ESTRATEGIKOAK

#### MP01.- Estrategia, Plangintza eta antolaketa.

PR 0101 Egitekoaren identifikazioa eta berrikuspena.

PR 0103 Antolaketa-egitura eta LZ egitea.

PR 0102 Ikuskaritzaren estrategia: Hiru Urteko Plana, Urteko Plana eta sistema berrikustea.

PR 0104 Barne eta kanpo komunikazioa

### ZERBITZUA EMATEKO PROZESUAK

#### MP02.- Zerbitzuen identifikazioa eta ematea.

PR 0201 Ebaluazio-jarduerak

PR 0202 Kontrol-jarduerak

PR 0203 Aholkularitza-jarduerak

PR 0204 Lankidetzeta-jarduerak

### AGIRI ETA BALIABIDEAK KUDEATZEKO PROZESUAK

#### MP03.- Giza baliabideen kudeaketa.

PR 0301 Pertsonal hornikuntza

PR 0302 Pertsonal berriaren harrera

PR 0303 Pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzea

#### MP04 Agirien kudeaketa

PR 0401 Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola

#### MP05 Baliabide materialen kudeaketa.

PR 0501 Baliabide materialen hornikuntza

### NEURTU ETA AZTERTZEKO PROZESUAK

#### MP06 Neurketa, azterketa eta hobekuntza

PR 0601 Hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.

PR 0602 Proposamenak, kexak eta erreklamazioak.

PR 0603 Barne auditoretzak.

PR 0604 Desadostasunen, jarduera zuzentzaileen eta prebentziozko jardueren kudeaketa

## II. ERANSKINA

### 2007/08rako IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

#### PR 0201 Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Ikastetxeen ebaluazioa</b>										
0201 01	Kalitatea gestionatzeko sistemaren (KGS) ebaluazioa.	1. hiru hilabetea	Ik. txos.	01/31	KGS garatzen ari diren ikastetxeak eta Berritzegun.	J.A. Fernández	C. Mediavilla A. Idígoras	KGSn esperientzia duten ikuskariak	EAE	
0201 02	Kualifikazio-sistemari lotutako prestakuntzaren auditoretza	Azaroa-maiatza	Ik. txos. EAE txos.	05/30 06/30	Lagina	P. Bilbatua	J.A. González J.M. Kortazar I. Erice	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	Lurraldea	
0201 03	Araubide orokor, bereziko eta kirol-irakaskuntzetako heziketa-zikloen auditoretzak.	Urtarrila-maiatza	Ik. txos. EAE txos	06/30	Heziketa-zikloak dituzten ikastetxeen lagina	J. A. Romero	P. Bilbatua J.M. Kortazar I. Erice	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	Lurraldea	Plangintza eta balidazioa
0201 05	Diagnostiko ebaluazioaren ondorioz ikastetxeetan eratuak Hobekuntza Planen ebaluazioa	Ikasturte osoan	EAE txos.	06/30		R. Juan	M. Hidalgo G. del Rio	Erreferentziako ikuskariak + arduradunak	EAE	Plangintza eta balidazioa
0201 06	Ikastetxeen autonomia Planen ebaluazioa	Ikasturte osoan	Ik. txos.	06/30	Autonomia plana duten ikastetxeak	M. Bonet	C. Mediavilla A. Idígoras JA. Fernández	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	EAE	

## PR 02.01 Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa</b>										
0201 10	Zerbitzu-eginkizunak	2. eta 3. hiruilekoa	Banakako txostena	05/30	Guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0201 11	Lanpostuaren lan-eskakizunera egokitzea	Eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Ikuskari espezialistak	Lurraldea	
0201 12	Irakasteko gai izatea	Eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0201 13	Praktiketako funtzionarioak (EPE)	2. eta 3. hiruilekoa	Banakako txostena	06/30	Praktikak egiten dauden guztiak	M. Bonet	L. de Juan PL. Rodríguez P. J. Macho	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida

## PR 02.02 Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
0202.02	Ikastetxeen prestakuntza-proiektuen kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiruilekoa	Banakako txostena	05/30	Onartutako proiektuak dituzten ikastetxeak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 08	Etxean arreta emateko programaren kontrola eta jarraipena.	Eskaeraren arabera	Ik. txos. EAE txos	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	C. Echeverría	R. Fernández P. Ibarrodo M. Saenz de Urturi	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 09	Lanbide Heziketaren Euskal Planaren esparruan egiten diren jardueren kontrola.	1. hiruilekoa	Ik. txos.	09/28	LHko ikastetxe pribatuak	J. A. Romero	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
<b>Curriculum-aniztasuneko programak / Hezkuntzan Parte Hartze Espezifikokoak eta Eskolatzeko Osagarriak:</b>										
0202 21	Curriculum-aniztasuneko eskaeren balorazioa eta taldeen kontrola.	Ekaina eta Iraila	Ik. txos.	10/15	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 22	Hezkuntzan Parte Hartze Espezifikoko Programen eskaerak baloratzea.	3. hiruilekoa	Ik. txos	06/30	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 23	Onartutako Hezkuntzan Parte Hartze Espezifikoko Programen kontrola eta jarraipena.	2. hiruilekoa	Ik. txos	03/31	Onartutako talde guztiak	J. Granja	M. García L. Barrutia J. M. Guillén	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida

## PR 02.02 Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak	
			Txosten motak	Data							
<b>Curriculum-aniztasuneko programak / Hezkuntzan Parte Hartze Espezifikoko Programak eta Eskolatzeko Programa Osagarriak:</b>											
0202 24	Eskolatzeko Programa osagarrien baloratzea.	Programa eskaerak	Eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
<b>Ikasle etorkinak eta gizarte-egoera ahuleko ikasleak eskolatzeko programaren kontrola eta jarraipena:</b>											
0202 30	Ikasle etorkinen eskolatzearren kontrola.		Ikasturte osoan	EAE txos.	06/30	Zerikusia duten ikastetxe guztiak	I. Tazon	L. Rojo D. Rabanal D. Mazuela	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	Lurraldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 32	Hizkuntza Errefortzu Programetako ikasle etorkinei eskainitako arreta prozesuaren jarraipena.		Ikasturte osoan	EAE txos.	06/30	Zerikusia duten ikastetxe publikoak	I. Tazon	L. Rojo D. Rabanal D. Mazuela	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	Lurraldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
<b>Haur-eskolak</b>											
0202 40	0-3 urteko Udal Haur Eskolen eta ikastetxe pribatuen deialdian ezarritako baldintzen jarraipena eta kontrola.		Ikasturte osoa	Ik. txos. EAE txos	06/30	0-3 urteko udal eta pribatu eskola guztiak	I. Cereceda	A. Uriarte A. Salvador J. Pérez A. Unamuno A. Oianguren	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldeak	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 41	Haurreskolen jarraipena eta kontrola.		Ikasturte osoa	Ik. txos.	06/30	Haurreskola berri guztiak	I. Cereceda	A. Uriarte A. Salvador J. Pérez A. Unamuno A. Oianguren	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida



## PR 02.02 Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten mota	Data						
<b>Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua</b>										
0202 50	Ikastetxeen EEDren arau-kontrola.	1. hiruilekoa	Ik. txos. EAE txos	12/10 01/14	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez P. Bilbatua J. L. Sabando J.A. Ayucar	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 51	Ikastetxe publiko eta itunpekoetako talde eta ikasle kopuruaren kontrola.	1. hiruilekoa	Ik. txos.	Eskaeraren arabera	Ikastetxeak eskaeraren arabera	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 52	Ikastetxeen dokumentazio eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa.	2. Hiruilekoa	Ik. txos.	03/31	Ikastetxeen lagina	J. A. Altozano	R. Fernández I. Erice	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 53	Ikastetxe publikoetako irakasleen absentismoaren kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. txos	07/15	Ikastetxe publiko guztiak	M. Bonet	J. P. Risco Marina García J. A. Otaduy J. A. Altozano	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 55	Ikastetxeen eskola-egutegien kontrola eta jarraipena.	Ekaina Ikasturte osoa	Ik. txos.	06/30	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. L. Sabando J. A. Ayúcar	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida

**PR 02.02 Kontrol-jarduerak.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarier jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua</b>										
0202 59	Zuzendaritza karguetarako izendapen-proposamenen kontrola	3. hiruilekoa	EAE Txostena	07/15 09/30	Ikastetxe publiko guztiak	P. Bilbatua	Mariví García X. Egizabal	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 60	Zuzendaritzaz besteko karguetan jarduteko izendapen-proposamenen kontrola	1. hiruilekoa	Ik. Txos.	10/30	Ikastetxe publiko guztiak	Lurralde Buruak	----	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 61	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako tutore eta zikloko koordinatzaileen eta Bigarren Hezkuntzako tutore eta sailburuen eginkizunen betekizun baieztapenaren kontrola eta jarraipena.	Ikasturte osoa	Ik. txos. EAE txos	05/16	Ikastetxe publikoen lagina	J. Granja	M <sup>a</sup> T. Ruiz M. Hernández I. Etxeberria	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
<b>Curriculum</b>										
0202 71	Programazio didaktikoen ikuskatzea. Programazio laburtuen kontrola.	1. hiruilekoa	Ik. txos. EAE txos	12/20	DBH, Batx. eta Hez. Zikloak dituzten ikastetxeak	P. M. Legarreta	Mariví García K. Mujika	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 73	Curriculum-egokitzapen esanguratsuen jarraipena eta kontrola.	1. hiruilekoa	Banakako txostena	12/21	Proposamen guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 74	Helduen Hezkuntzako ikastegi publiko espezifikoetako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola.	1. hiruilekoa	Banakako txostena	09/30	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida

PR 02.02 Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Ematza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Irakasle eta ikasleak</b>										
0202 83	Euskara-salbuespenen kontrola maila desberdinetan.	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	12/01	Eskaera guztiak	M. Zarraonandia	C. Mediavilla L. Puente	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	Lurraldea	
0202 84	DBHko Graduatuaren proposamenen kontrola.	3. hiruhilekoa	Ik. txos.	07/15	Proposamen guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 85	Irakasleen titulazioen kontrola.	Ikasturte osoa	Banakako txostena		PTko habilitazioen eskaerak	C. Echeverria	R. Fernández P. Peñacoba B. Urkullu	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	Lurraldea	
0202 86	Ikasleen absentismoaren kontrola.	Ikasturte osoa	EAE txos.	07/15	L Hezkuntza eta DBHko ikastetxe guztiak	I. Cereceda	Marina García L. Barrutia P. Carnicero	Inspectores-as de referencia	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 87	Larderiak eta tratu txarrek ikasleen artean duten eraginaren jarraipena eta kontrola.	Ikasturte osoa	EAE txos.	06/30	Gertatzen diren ikastetxe guztietan	J. M <sup>a</sup> Aztiria	J. Grisaleña M <sup>a</sup> T. Ruiz Lourdes Isasa Nile Arroita B. Manzarbeitia	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 89	Hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat erabiltzen diren giza baliabideen kontrola.	1. eta 2. hiruhilekoa	EAE txos	03/30	Ikas. pribatuetako eta Etengabeko Ikaskuntza geletako Pedagogia Terapeutikoko irakasleak	Imanol Tazón	L. Rojo D. Rabanal D. Mazuela	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	Lurraldea	

## PR 02.02 Kontrol-jarduerak

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Irakasle eta ikasleak</b>										
0202 90	Araubide-orokorreko irakaskuntzan aritutako ikasleen emaitza akademikoen difusioa eta kontrola.	Ekaina-uztaila-iraila	EAE txos.	09/30	Ikastetxe guztiak	J.A. Romero	J.A. Sánchez	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 91	Ikastetxe publikoetako langileen aurkako erasoen jarraipena eta kontrola.	Ikasturte osoa	EAE txos.	06/30	Gertatzen diren kasuetan	J. M. Aztiria	Lurralde Buruak	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 92	Irakasleen, lan-itunpeko langileriaren, irakasleriaz besteko eta ikasleen lanuzteen kontrola	Ikasturte osoa	EAE txos.		Gertatzen diren ikas. publiko guztietan	M. Bonet	Lurralde Buruak	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 93	Maila guztietako ebaluazio-akten kontrola.	3. hiruhilekoa		07/15	Ikastetxe guztiak	J. A. Altozano	R. Fernández I. Erice	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 94	Bizikidetzaren planen jarraipena eta kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. EAE txos	06/30	Bizikidetzaren plana duten ikastetxe publikoak	J. M. Aztiria	J. Grisaleña M <sup>a</sup> T. Ruiz Lourdes Isasa Nile Arroita B. Manzarbeitia	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskariaren gida
0202 95	Enplegatu publikoen diziplina-araubidearen aplikazioa	Ikasturte osoa	Banakako txostena	06/30	Ikastetxe publikoak	M. Bonet	J.I. Molinuevo P. Peñacoba A. Paniego I. Bernaola	Izendatutako ikuskariak	EAE	

### III. ERANSKINA

#### URTEKO PLANAREN HELBURU ETA ADIERAZLEEN ESTIMAZIOA

<b>Helburua</b>	Hezkuntza-sistema kontrolatu eta ebaluatzea, Hezkuntza Saileko irakaskuntza eta programa berriak ezartzeari dagokionez.		
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>	
Ikuskari Nagusia		2008ko ekaina	
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>		<b>Arduraduna</b>	<b>Epea</b>
PR 0201 eta PR 0202 prozesuetan hezkuntza sistema ebaluatzeko edo kontrolatzeko dauden azpiprozesuak		Azpiprozesu-taldeak	Azpiprozesu bakoitzean ezarritakoa.
<b>Baliabideak</b>			
<b>Pertsonak</b>		<b>Baliabide ekonomiko eta materialak</b>	
Azpiprozesu-taldeak			
<b>Adierazleak:</b>	Azpiprozesu bakoitzean ezarritakoak		

<b>Helburua</b>	Urteko planaren dokumentazioarekin eta ekintzak ezartzearekin jarraitzea, Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtagiria, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren araberkoa, lortzea helburutzat izanik.		
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>	
Ikuskari Nagusia		2007ko abendua	
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>		<b>Arduraduna</b>	<b>Epea</b>
Ezartzeko plan zehaztua garatzea.		Kalitate Batzordea	2007ko urria
Ezartzearen eta jarduerak hartzearen jarraipena		Kalitate Batzordea	2007ko azaroa
Barne auditoria egitea		Izendatutako auditore taldea	2007ko abendua
Ezartzearen eta jarduerak hartzearen jarraipena		Kalitate Batzordea	2008ko martxoa
Ezartzearen eta jarduerak hartzearen jarraipena		Kalitate Batzordea	2008ko uztaila
<b>Baliabideak</b>			
<b>Pertsonak</b>		<b>Baliabide ekonomiko eta materialak</b>	
Kalitate Batzorde Kanpo aholkulariak		Aholkularitzaren kostua	
<b>Adierazleak:</b>	Ezartzeko plana betetzeko epeak		

<b>Helburua</b>	Ikuskariaren ekintzak koordinatu eta bateratzea, erreferentzia-ikuskariaz gidarekin eta prozesu eta azpiprozesuen jarraibideekin bat etorriz.		
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>	
Ikuskari Nagusia		2008ko uztaila	
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>		<b>Arduraduna</b>	<b>Epea</b>
Erreferentziako ikuskariaren gidan agertzen diren jardueren garapen eta jarraipena (1. hiruhilekoa)		Lurralde Arteko Batzordea	2007ko abendua
Erreferentziako ikuskariaren gidan agertzen diren jardueren garapen eta jarraipena (2. hiruhilekoa)		Lurralde Arteko Batzordea	2008ko martxoa
Erreferentziako ikuskariaren gidan agertzen diren jardueren garapen eta jarraipena (3. hiruhilekoa)		Lurralde Arteko Batzordea	2008ko uztaila
<b>Baliabideak</b>			
<b>Pertsonak</b>		<b>Baliabide ekonomiko eta materialak</b>	
Lurralde Arteko Batzordea			
<b>Adierazleak:</b>	Erreferentziako ikuskariek egindako ekintzen %		

<b>Helburua</b>	Dokumentazioa kudeatzeko eta paper- eta informatika-euskarrian artxibatze finkatuta dagoen sistema ezartzea.		
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>	
Ikuskari Nagusia		2007ko urria	
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>		<b>Arduraduna</b>	
<b>Epea</b>			
Artxiboak antolatze arauen ezarpena.	Lurralde Batzordea	Arteko	2007ko urria
Artxiboak antolatze arauak ezartzeko prozesuaren jarraipena eta egokitzapena (1. hiruilekoa)	Lurralde Batzordea	Arteko	2007ko abendua
Artxiboak antolatze arauak ezartzeko prozesuaren jarraipena eta egokitzapena (2. hiruilekoa)	Lurralde Batzordea	Arteko	2008ko martxo
<b>Baliabideak</b>			
<b>Pertsonak</b>		<b>Bitarteko ekonomiko eta materialak</b>	
Lurralde Arteko Batzordea			
<b>Adierazleak:</b>	Artxiboak antolatze arauak behar bezala ezartzen dituzten zonaldeen %		

<b>Helburua</b>	Prestakuntza lehenestea, irakaskuntza berrien, ebaluazio diagnostikoaren eta ikastetxeen hobekuntza-planen ezarpenarekin zerikusia duen guztirako.		
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>	
Ikuskari Nagusia		2008ko uztaia	
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>		<b>Arduraduna</b>	
<b>Epea</b>			
Ikuskaritzaren prestakuntza-plana egitea (Ikastetxeetako irakaskuntza berrien, ebaluazio diagnostikoaren eta hobekuntza-planen ezarpenarekin zerikusia duen guztia lehenetsiz)	Ikuskaritza Zentrala		2008ko martxo
Prestakuntza-planaren jarraipen eta doikuntza (3. hiruilekoa)	Lurralde Batzordea	Arteko	2008ko uztaia
<b>Baliabideak</b>			
<b>Pertsonak</b>		<b>Bitarteko ekonomiko eta materialak</b>	
Ikuskaritza Nagusia Lurralde Arteko Batzordea			
<b>Adierazleak:</b>	Prestakuntza-planaren ekintzen betetze-mailaren % (bereziki, ikastetxeetako irakaskuntza berrien, ebaluazio diagnostikoaren eta hobekuntza-planen ezarpenarekin zerikusia duen guztia) Balorazio positiboa duten prestakuntza-ekintzen % (6tik gorako asebetetze-maila)		

<b>Helburua</b>	Eskola-elkarteko kideek egindako eskariei arreta jarri eta erantzutea.		
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>	
Ikuskari Nagusia		2007ko abendua	
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>		<b>Arduraduna</b>	
<b>Epea</b>			
Proposamen, kexa eta erreklamazioak egiteko prozesua planifikatu eta ezartzea	Lurralde Batzordea	Arteko	2007ko urria
<b>Baliabideak</b>			
<b>Pertsonak</b>		<b>Bitarteko ekonomiko eta materialak</b>	
Lurralde Arteko Batzordea			
<b>Adierazleak:</b>	Idatziz edo presentzian aurkeztu diren eta ezarritako epean erantzun diren eskaeren %.		

<b>Helburua</b>	Ikuskaritzaren xedea, ikuspegia, baloreak eta estrategiak berraztertu eta eguneratzea.	
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>
Ikuskari Nagusia		2008ko ekaina
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>	<b>Arduraduna</b>	<b>Epea</b>
Ikuskaritzaren xedea, ikuspegia, baloreak eta estrategiak berraztertu eta eguneratzea.	Ikuskari Nagusia	2008ko ekaina
<b>Baliabideak</b>		
<b>Pertsonak</b>		<b>Bitarteko ekonomiko eta materialak</b>
Ikuskaritza Nagusia		
<b>Adierazleak:</b>	Lanaren epea betetzea.	

<b>Helburua</b>	Ikuskaritzaren LZ berria onartu eta argitara emateko proposamena egitea.	
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>
Ikuskari Nagusia		2008ko martxoa
<b>Helburuak lortzeko lana</b>	<b>Arduraduna</b>	<b>Epea</b>
Ikuskaritzaren LZ berria egitea	Ikuskari Nagusia	2008ko martxoa
<b>Baliabideak</b>		
<b>Pertsonak</b>		<b>Bitarteko ekonomiko eta materialak</b>
Ikuskaritza Nagusia		
<b>Adierazleak:</b>	Lanaren epea betetzea.	

<b>Helburua</b>	Ikuskariak LZko lanpostuetara atxikitze prozesuaren arauketa eta Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko enplegu-eskaintzaren arauketa proposatzea.	
<b>Helburuaren arduraduna</b>		<b>Epea</b>
Ikuskari nagusia		2008ko martxoa
<b>Helburuak lortzeko lanak</b>	<b>Arduraduna</b>	<b>Epea</b>
Ikuskariak LZko lanpostuetara atxikitze prozesuaren arauketa prestatzea.	Ikuskari Nagusia	2008ko martxoa
Hezkuntzako Ikuskarien Kidegora sartzeko enplegu-eskaintza prestatzea.	Ikuskari Nagusia	2008ko martxoa
<b>Baliabideak</b>		
<b>Pertsonak</b>		<b>Baliabide ekonomiko eta materialak</b>
Ikuskaritza Nagusia		
<b>Adierazleak:</b>	Lanaren epea betetzea.	